

## **Deustotechek «Conexiones Improbables 2011» delakoan parte hartu du, hainbat sektoretako profesionalak lotzen dituen elkarlaneko ikerketa ekimenean**

DeustoTech da «Conexiones Improbables 2011»n parte hartu zuen bederatzi erakundeetako bat, martxoaren 23an komunikabideen aurrean aurkeztu zen Eutokia proiektu batean. Parte hartzen duen erakundeetako bakoitzak ikerketaren arlo batean lan egiten du, DeustoTechen kasuan, emakumeen artean IKTen esparruko ikerketarako bokazioa sortzeko, baita horiei lotutako graduako ingeniarietzako bokazioak sortzeko ere. «Conexiones Improbables»ek bitarteko lana egiten du, arteak, pentsamendua, zientzia, enpresa eta gobernantza harremanetan jartzeko. Horrela, elkarlaneko eta elkarren arteko sormeneko ekimenen komunitate bat sortzen da, berrikuntza eta gizarte erantzukizuna goiburu dituenak. Berrikuntza irekiaren paradigmak eta esparruen arteko diziplinen eta pertsona desberdinen gurutzaketan oinarriak ditu abiaburu. Ustez, ia ezinak diren loturak dira, baina posible direnak. Ekimen horrek eskaintzen dizkie enpresei, ikerketa zentroi eta administrazio publikoei (berdin dio zein neurri duen edo zein jarduera esparrutakoa den), beste erreferentzia eta metodologia batzuk dituzten profesionalak, esaterako: artistak eta zientzietatik datozen ikertzaileak.